

2023-24-25eko EPEa: OHIKO GALDERAK

(eguneratua: 2026ko maiatza)

1. 2023-2024-2025eko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren argitalpena
2. Parte hartzeko baldintzak
3. Hautaketa-prozesuan izena ematea
4. Informazioa jasotzeko kontaktua
5. Prozesuaren jarraipena
6. Oposizioaldia

1.- 2023-2024-2025EKO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAREN ARGITALPENA

2026ko otsailaren 4ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen Osakidetza-zuzendari nagusiaren ebazpena, 2023-2024-2025eko Enplegu Publikoaren Eskaintzari buruzkoa:

- **349/2026 Ebazpena**, otsailaren 23koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez ezartzen baitira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan onartzen diren Enplegu Publikoaren Eskaintzen **deialdian sartuko diren lanpostuak zehazteko irizpideak**.
- **120/2026 Ebazpena**, urtarrilaren 28koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen baitira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2023-2024-2025eko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten **oinarri orokorrak**.

Zer kategoria sartzen dira deialdian?

2023-2024-2025eko hautaketa-prozesuaren deialdian, I. eranskinean zerrendatutako kategoriak sartzen dira.

Deialdia EHAAn argitaratuko da, baina kategoria guztiak ez dira aldi berean argitaratuko, kategoria-taldeka baizik.

Parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea kategoria bakoitzaren oinarri espezifikoetan zehaztuko da.

2026ko martxoaren 20an, 2023-2024-2025eko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren kategoria hauen oinarri espezifikoak argitaratuko dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian:

- ADMINISTRAZIOKO ETA KUDEAKETAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA
- ERIZAINA
- FISIOTERAPEUTA
- LABORATEGIKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA
- ADMINISTRARIA
- ERIZAINZAKO LAGUNTAILEA
- ADMINISTRARI LAGUNTAILEA
- ZELADOREA
- ZERBITZUETAKO LANGILEA

Kategoria horietan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea 2026ko martxoaren 23an hasi eta apirilaren 22ko 14:00etan amaituko da.

23-24-25eko EPE honetan eskaintzen diren gainerako kategorietan izena emateko epea bakoitzaren oinarri espezifikoak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen diren unean jakingo da.

IZENA EMATEKO BIGARREN FASEA

2026ko ekainaren 1ean, 2023-2024-2025eko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren kategoria hauen oinarri espezifikoak argitaratuko dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian:

- F. E. LARRIALDIETAKO MEDIKUA
- F. E. OSPITALE-PEDIATRIAKO MEDIKUA
- F. E. GSU-KO MEDIKUA
- F. E. PSIKOLOGO-KLINIKO TEKNIKARIA
- F. FARMAZIALARI TEKNIKARIA
- F. ODONTOLOGO TEKNIKARIA
- LIBURUZAINA
- EKONOMIAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA
- INFORMATIKAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA
- LETRADU KORPORATIBOA
- JURIDIKOKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA
- MANTENTZE LANETAKO ETA INSTALAZIOETAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA (GOI-MAILAKO INGENIARIA)
- EUSKARAREN NORMALKUNTZAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA
- ANTOLAKUNTZAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA
- ERGONOMIA PREBENTZIO ETA PSIKOSOSIOLOGIA GOI-MAILAKO TEKNIKARIA
- SEGURTASUN ETA HIGIENEAREN PREBENTZIORAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

- OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMADUNA
- LAN-OSASUNeko ERIZAINA
- OSASUN MENTALEKO ERIZAINA
- EMAGINA
- TERAPEUTA OKUPAZIONALA

- ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETAKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA
- MANTENTZE LANETAKO ETA INSTALAZIOETAKO ERDI MAILAKO TEKNIKARIA (INGENIARI TEKNIKOA)
- GIZARTE-LANGILEA

- ANATOMIA PATOLOGIAKOA ETA ZITOLOGIAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA
- AUDIOPROTESIKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA
- DIETETIKAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA
- OSASUN-DOKUMENTAZIOKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA
- ERRADIODIAGNOSTIKOKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA
- ERRADIOTERAPIAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA

- SUKALDARIA
- INFORMATIKAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA
- ELEKTROMEDIZINA INSTALAZIOETAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA

- FARMAZIAKO LAGUNTZAILEA

- GARRAIO SANITARIOAREN GIDARIA
- LARRIALDIETAKO IBILGAILUEN GIDARIA
- JOSTUNDEGIKO OFIZIALA
- BEROGAILUA MANTENTZEKO OFIZIALA-ITURGINA
- MANTENTZE ELEKTRIKOKO OFIZIALA
- INSTALAZIOEN MANTENTZEKO OFIZIALA
- MANTENTZE MEKANIKOKO OFIZIALA

Kategoria horietan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea 2026ko ekainaren 2an hasi eta ekainaren 29ko 14:00etan amaituko da.

Noiz izango dira martxoaren 20an EHAA argitaratutako oinarri espezifikoaren kategorietako azterketak?

2026ko martxoaren 20ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako deialdiko kategorietako hautaketa-probak 2026ko uda baino lehen egitea aurreikusten da, ekainaren 19tik 21era bitartean, Bilbao Exhibition Centre-n (BEC).

Ekainak 19: Administrazio eta Kudeaketako Goi-Mailako Teknikaria, Laborategiko Teknikari Espezialista eta Fisioterapia

Ekainak 20: Zeladorea, Erizaintzako Laguntzailea eta Zerbitzuetako Langilea

Ekainak 21: Erizaintza, Administrazio laguntzailea eta Administrazioa

Hautaketa-prozesuaren oinarri orokorretan adierazitako baliabideen bitartez emango da horren inguruko informazio gehiago.

Noiz izango dira ekainaren 1ean EHAAn argitaratutako oinarri espezifikoen kategorietako azterketak?

2026ko ekainaren 1ean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian deialdia egiten den **kategorietako hautaprobak 2026ko urritik Aurrera egitea aurreikusten da.**

Azterketen eguna, ordua eta lekua irailean zehaztu eta argitaratuko dira.

Eta gainerako kategorietakoak?

Gainerako kategorietako hautaketa-probak oinarri orokorretan adierazitako bitartekoen bidez jakinaraziko dira, oinarri espezifikokoak argitaratu eta izena emateko epea ireki ondoren.

Nolakoak izango dira azterketak?

Azterketa bakoitzak ariketa bat edo bi izango ditu, teorikoa edo teorikoa eta praktikoa, oinarri espezifikoean ezarritakoaren arabera.

Azterketen galdera guztiak, teorikoak zein praktikokoak, Osakidetzaren webgunean argitaratutako galdera-multzotik aterako dira (galdera-sorta). Galdera-sorta hori Osakidetzaren webgunean egongo da eskuragarri, izena emateko eskabideak aurkezteko epean.

Osakidetzaren webgunearen bidez, eta galdera-sortarekin batera, dagokion bibliografia emango da.

2.– PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Nork egin dezake Osakidetzaren 2023-2024-2025eko hautaketa-prozesuan izena emateko eskaera?

120/2026 Ebazpenean eta izena eman nahi den kategoriaren oinarri espezifikokoak jasotzen dituen ebazpenean ezarritako baldintzak betetzen dituen edonork.

Dagokion deialdian izena emateko eskabideak aurkezteko epearen azken egunean baldintzak bete behar dira.

Kategoria batean baino gehiagotan egin daiteke izena emateko eskaera?

Bai, eskatutako titulazioa izanez gero eta 120/2026 Ebazpenean eta izena eman nahi den kategoriaren oinarri espezifikokoak jasotzen dituen ebazpenean ezarritako baldintzak betez gero, bai.

Zein dira hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintzak?

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko betekizunak 120/2026 Ebazpenaren 8.2 oinarrian (120/2026 Ebazpena, otsailaren 28koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen baitira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2023-2024-2025eko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak) eta izena eman nahi den kategorien oinarri espezifikoetan daude jasota.

Funtsean, honako hauek dira:

a) Nazionalitatea: Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea izatea, edo Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunen arabera langileen joan-etorri askea aplika dakiokkeen Estaturen bateko nazionalitatea izatea.

Era berean, onartuak izan daitezke aurreko paragrafoan aipatzen diren nazionalen ezkontideak, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude, bai eta izangaiaren eta bere ezkontidearen ondorengoak ere, baldin eta bi ezkontideak ez badaude zuzenbidez bananduta, ondorengoak hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak izanda ere haien kargu bizi badira.

b) Adina: 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko adina ez gainditzea.

c) Titulazioa: deialdian eskatzen den titulazioa izatea edo titulu hori jasotzeko eskubideak ordainduta izatea eskabideak aurkezteko epearen barruan.

Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria eduki behar da, azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, edo titulua ondorio profesionaletarako aitortuta eduki behar da, azaroaren 8ko 1837/2008 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera (otsailaren 21eko 103/2014 Errege Dekretuak aldatu zuen errege-dekretu hori).

Homologazio- edo aitorten-prozesuaren ondoren lortutako titulazioak geroago aurkeztea onartuko da, betiere homologazio- edo aitorten-eskabidea hautaketa-prozesu honetan izena emateko epea amaitu baino lehen egin bada. Egoera horretan dauden eta azterketa gainditu duten izangaiek destinoak aukeratzeko epea amaitu baino lehen egiaztatu beharko dute eskatutako titulazioa.

d) Gaitasun psikofisikoa: Destinoan normaltasunez jarduteko behar den gaitasun psikofisikoa izatea. Gaitasun hori egiaztatzeko, hautaketa-prozesua gainditu ondoren, izangaiek azterketa medikoa egin beharko du horretarako zehaztuko den zentroan. Ezinbestekoa izango da eskakizun hau betetzea lanpostuaz jabetu ahal izateko.

e) Diziplina-espeditente bidez osasun-zerbitzu edo administrazio publiko batetik bereizita ez egotea, enplegu edo kargu publikoetarako erabateko desgaiakuntza edo desgaiakuntza berezi irmoa ez izatea, eta adingabeekin lanbidean jardutea eragozten duen kausaren batean ez egotea, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Osakidetza zuzendari nagusiaren urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenean ezartzen denaren arabera. Azken horren bidez Osakidetza

adingabeekin ohiko harremana izatea eskatzen duten lanpostuetan sartzeko eta jarduteko betekizunari buruzko jarraibide osagarriak onartzen dira.

Bestalde, Osakidetzako zuzendari nagusiaren urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenarekin bat etorritik, a) paragrafoan aipatutako beste estatu batzuetako nazionalitatea duten pertsonak edota Espainiakoaz gain beste nazionalitate bat dutenek, gainera, ezin dute egon desgaituta edo egoera baliokidean, ezin dute izan jatorrizko herrialdean edo nazionalitatea duten herrialdean funtzio publikoan sartzeko eragozten duen diziplina-zehapenik edo zigor penalik, eta ezin dute egon urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikuluan aipatzen diren eta adingabeekin lan egitea eragozten dien delituengatik epai irmo bidez kondenatuta beren jatorrizko herrialdean edota nazionalitatea duten herrialdean.

f) Esleitutako destinoan lanean hasteko unean izangaia ezin da egon indarreko araudiaren araberrako ezintasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta; hala ere, ez da eragozpen izango interesdunak aukera egin dezan.

Esleitutako destinoaren esleipenaren aurretik agintaritzak eskudunak izangaiak izena eman duen kategoriarekin / lanpostu funtzionalarekin bat datorren ohiko lanbideari dagokion ezintasun iraunkor absolutua edo ezintasun iraunkorra aitortzen badiu izangaiari, ez da beteko apartatu honetan ezarritako eskakizuna. Egoera horretan dagoen pertsonak Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio egoera hori, ezintasun iraunkorra aitortzeko jakinarazpena jasotakoan.

g) Jabetzan lanposturik ez izatea estatutupeko langile finko gisa lortu nahi den kategoria berean, edozein dela ere haren administrazio-egoera.

Oinarri hauetan arautzen den prozesuak dirauen bitartean izangaiak Osasun Sistema Nazionaleko beste osasun-zerbitzu batean hartzen badu lanpostu bat jabetzan hautagai den kategoria bereko estatutupeko langile finko gisa, hala jakinarazi beharko dio Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzari lanpostua lortutakoan.

h) Izena emateko eskubideak ordaintzea: Dagokion kategoriarako eskabideak aurkezteko epearen barruan ordaindu izana izena emateko eskubideak.

i) Oinarri espezifikoetan ezarritako gainerako eskakizunak betetzea, hizkuntza-eskakizuna barne hura lanpostura sartzeko baldintza den kasuetan.

Izena eman daiteke aldi berean txanda irekian eta barne-sustapenerako txandan?

Ez. Izangaiak bi txandetako batean baino ezin dute parte hartu (irekian edo barne-sustapenean).

Zer betekizun espezifiko bete behar dira barne-sustapenerako?

a) Langile finkoa izatea eta zerbitzu aktiboan, senideak zaintzeko eszedentzian, genero-indarkeriagatik eszedentzian edo zerbitzu berezietan egotea eta, hala badagokio, aukeratu duen kategoria ez den beste kategoria eta lanpostu funtzional batean egotea, betiere lanpostua lortzeko eskatzen den titulua jatorrizko kategoriaren kategoria berekoa edo goragokoa bada, eta egoera horretan jarraitzea esleitzen zaion destinoaz jabetu arte.

b) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko jatorrizko kategorian eta lanpostu funtzionalean bi urteko zerbitzua bete izana langile finko gisa.

Ezin izango dute txanda honetan parte hartu kategorian eta lanpostu funtzional bereko langile finkoak diren izangaiek.

Barne-sustapeneko txandan izena ematen badut eta eskabideak aurkezteko azken egunean baldintzak betetzen ez baditut, zer gertatzen da nire eskaerarekin?

Kasu horretan, eskaera txanda irekira eramango da automatikoki, eta horrela argitaratuko da onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda jasotzen duen ebazpenean.

Barne-sustapeneko txandan izena ematen badut, eskabideak aurkezteko azken egunean betetzen baditut txanda horretan parte hartzeko baldintzak, barne-sustapeneko txanda honetan onartuta banago, eta txanda honetako baldintzak betetzeari uzten badiot esleitzen zaidan destinoaz jabetu aurretik, zer gertatzen da nire eskaerarekin?

Kasu horretan, prozesutik kanpo geratuko zara: langile finkoa izateari eta zerbitzu aktiboan, genero-indarkeriagatiko eszedentzian edo kategorian zerbitzu berezietan eta, hala badagokio, jatorrizko lanpostu funtzionalean egoteari utzi badiozu.

Nola jakin dezaket deialdi bakoitzean zer titulazio eskatzen den?

Kategorietara sartzeko titulazioak Osakidetzako Lanpostu Funtzionalen Dekretuan eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoen arautzen dira.

Zer gertatzen da nire titulazioa atzerritarra bada?

Ondorio profesionaletarako titulazioa homologatzeko edo aitortzeko prozesuan bazaude, homologazio- edo aitorten-eskaeraren fotokopia soila aurkeztu beharko duzu, eskabide hori prozesuan eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen egin zela egiaztatuz.

Zer titulazio dagokio administrarien kategoriarik?

Informazioa dokumentu erantsian duzu, dokumentuaren amaieran.

Era berean, kategorian honetan parte hartzen duten izangaiek honako modulu hauei dagozkien informatika-egagutzak egiaztatu beharko dituzte: Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 maila aurreratua, Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010, Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 maila aurreratua eta Microsoft Access 2000/XP/2003 maila aurreratua. Modulu horiek Euskadi Informazioaren Gizartean Planak eskaintzen ditu KZgunea zentro publikoetan.

Zer titulazio dagokio administrari laguntzaileen kategoriarik?

Informazioa dokumentu erantsian duzu, dokumentuaren amaieran.

Era berean, kategoria honetan parte hartzen duten izangaiek honako modulu hauei dagozkien informatika-ezagutzak egiaztatu beharko dituzte: Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 maila aurreratua eta Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarriko maila. Modulu horiek Euskadi Informazioaren Gizartean Planak eskaintzen ditu KZgunea zentro publikoetan.

- Administrari laguntzaileen kategorian, Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 maila aurreratua duten hautagaiek Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarriko mailako baldintza betetzen dutela ulertuko da.

Zer epe daukat IT txartela (betekizuna) lortzeko administrari eta administrari laguntzaile kategorietarako?

Betekizun gisa aurkeztu behar diren IT Txartelak lor daitezke eskabideak aurkezteko epearen azken egunera arte.

Noizko bete behar ditut hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskakizunak?

Baldintzak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira, oinarrietan aurreikusten diren salbuespenetan izan ezik, eta baldintza horiek betetzen jarraitu beharko da esleitzen den destinoaz jabetu arte.

Hizkuntza-eskakizunari dagokionez, derrigortasun-data igarota duten lanpostuak eskuratzeko betekizuna denean, fase arrunteko destinoak aukeratzeko epea amaitzean bete beharko da betekizun hori, eta, era berean, une horretara arte alegatu eta egiaztatu ahalko da.

3.- HAUTAKETA-PROZESUAN IZENA EMATEA

Nola eman dezaket izena?

Hautaketa-prozesuetan parte hartu nahi dutenek eskabidea Interneten bidez egin beharko dute, Osakidetzaaren web-orrian dagoen eskabidea betez. Horretarako helbidea hau da:

www.osakidetza.euskadi.eus

Eskabidea Internet bidez betetzeko, Eusko Jaurlaritzaren KZgunea zentro publikoak erabili ahal izango dira, eta zentroen zerrenda helbide honetan kontsultatu ahal izango da: www.kzgunea.net

Prozesuan onartua izateko, eskabideak epe barruan eta behar den eran aurkeztu behar dira, eta inskripzio-eskubideak ordaindu behar dira, aurreikusitako bi modalitateetako edozeinetan.

Nola ordain ditzaket izena emateko eskubideak?

Izena emateko eskubideak eskaerak aurkezteko epearen barruan ordaindu beharko dira, honako erakunde laguntzaileetako edozeinetan: Kutxabank, Euskadi Kutxa/Caja Laboral, La Caixa eta BBVA. Erakunde horien sukurtsaletan ordaindu nahi izanez gero, eskabide-orria aurkeztu beharko da finantza-erakunde laguntzailean, eta erakunde horrek, dirua sartu ondoren, mekanikoki baliozkotuko du ordainketa.

Internet bidez ordaintzea aukeratuz gero, eskabidean inskripzio-eskubideak ordaintzeko aurreikusitako atalak bete beharko dira.

Eskabidea osatzeko, inskripzio-eskubideari dagokion zenbatekoa ordaindu beharko da, deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoak jasotzen dituen ebazpenean xedatutakoaren arabera eta arlo horretan indarrean dagoen araudiaren arabera.

Inskripzio-eskubideak eskabideak aurkezteko epearen barnean ordaindu ezean, izangaia prozesutik kanpo geratuko da. Aurrekoa gorabehera, izangaia 12.1 oinarrian aurreikusitako onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratzen duen ebazpenaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epearen azken egunera arte zuzendu ahal izango du ordaindutako zenbatekoan egindako akatsa.

Tasak ezarritako epean ordaindu ez baditut, ez ordaindu izana zuzen dezaket?

Ezin da zuzendu ez ordaindu izana, eta, beraz, izangaia automatikoki baztertuko da.

Ordaindutako zenbatekoan akatsen bat egin badut, zuzendu al dezaket ez-ordaintze hori?

Izangaia onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratzen duen ebazpenaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epearen azken egunera arte zuzendu ahal izango du ordaindutako zenbatekoan egindako akatsa.

Zer epe daukat eskabidea aurkezteko eta izena emateko eskubideak ordaintzeko?

Epea 20 egun baliodunekoa da, eta lanbide-kategoria bakoitzaren oinarri espezifikoetan ezarriko da.

Zein txandatan parte har dezaket?

Bi txandetako batean baino ezin da parte hartu: barne-sustapeneko txandan, oinarri espezifikoetan hala adierazten duten kategorietan, edo txanda irekian.

Txanda bakoitzaren barruan, zein dira sartzeko kupo eta modalitateak?

Txanda bakoitzaren barruan (barne-sustapena eta txanda irekia), sartzeko modalitate orokor bat eta desgaitasuna-beste desgaitasun batzuk dituzten pertsonentzako erreserba-kupo bat daude, oinarri espezifikoek hala adierazten duten kategorietan.

Desgaitasun intelektuala dut. Ba al dago kupo espezifikorik 23-24-25eko EPE honetan?

Ez, deialdi honetan sarbide orokorreko modalitate bat eta desgaitasuna-beste desgaitasun batzuk dituzten pertsonentzat gordetako kupo bat daude bakarrik. Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzat, enplegu publikoaren eskaintzako deialdi espezifiko bat egingo da kolektibo horrentzat, oinarri orokor eta espezifiko propioak izango dituenak.

Salbuespenik edo hobaririk al dago izena emateko tasaren ordainketan?

Ez dago aurreikusita langabeziagatik edo familia ugariagatik salbuespenik edo hobaririk.

Barne-sustapeneko txandan izena ematen badut eta eskabideak aurkezteko azken egunean baldintzak betetzen ez baditut, zer gertatzen da nire eskaerarekin?

Kasu horretan, eskaera txanda irekira eramango da automatikoki, eta horrela argitaratuko da onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda jasotzen duen ebazpenean.

Barne-sustapeneko txandan izena ematen badut, eskabideak aurkezteko azken egunean txanda horretan parte hartzeko baldintzak betetzen baditut eta, beraz, barne-sustapeneko txanda horretan onartuta banago baina hautaketa-prozesuan zehar txanda horretako baldintzak betetzeari uzten badiot esleitutako destinoaz jabetu aurretik, zer gertatzen da nire eskaerarekin?

Kasu horretan, izangaia prozesutik kanpo geratuko da.

Non adierazten da txanda bakoitzean deitutako eta desgaitasuna duten pertsonak betetzeko erreserbatutako plazen kopurua?

Kategoria bakoitzeko oinarri espezifikoetan adieraziko dira txanda bakoitzean deitzen diren lanpostuen kopurua eta, hala badagokio, desgaitasuna dutenek betetzeko gordetako lanpostuen kopurua.

Aitortuta daukat % 33tik gorako desgaitasun ez-intelektuala, Administrazioako organo eskudunaren ebazpen bidez (foru-aldundietako sail eskuduna, IMSERSO, edo baliokidea), eta ebazpen horrek eskabideak aurkezteko azken egunean ondorioak ditu. Zer txanda eta kupo-modalitatetan eman dezaket izena?

Beste desgaitasun batzuen kupoan izena eman dezakezu, baldin eta parte hartu nahi duzun kategoriaren oinarri espezifikoetan kupo hori badago barne-sustapeneko txandan edo txanda irekian.

Parte hartu nahi duzun kategoriaren oinarri espezifikoetan ez badago desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako kuporik, sarbide orokorrean eman dezakezu izena.

Nola eta noiz egiaztatu behar dut agiri bidez beste desgaitasun batzuen kupoko partaidetza?

% 33tik gorako desgaitasun hori egiaztatzeko, desgaitasuna aitortzeko ebazpenaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da. Ebazpen hori Administrazioako organo eskudunak (foru-aldundietako sail eskudunak, IMSERSOk edo baliokideak) emana izan behar da, eta eskaerak aurkezteko epearen barruan entregatu behar da.

Zer gertatzen da beste desgaitasun batzuen kupoan parte hartzeko egin dudana eskaerarekin, egoera hori egiaztatzen ez badut?

Eskaera sarbide orokorreko modalitatera eramango da, horretarako eskakizunak betetzen badituzu.

Zer epe daukat hizkuntza-eskakizuna merezimendu gisa lortzeko?

Merezimendu gisa baloratuko dira dagokion deialdian onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda jasotzen duen ebazpenean aurreikusitako epearen azken egunera arte lortu eta behar bezala egiaztatu diren hizkuntza-eskakizunak.

Zer epe daukat derrigortasun-data igarota duten lanpostuak eskuratzeko hizkuntza-eskakizuna lortzeko?

Derrigortasun-data igarota duten lanpostuetara sartzeko hizkuntza-eskakizunaren baldintza betetzeko, fase arrunteko destinoak aukeratzeko epea amaitzean eskuratuta egon behar da, eta une horretara arte alegatu eta egiaztatu ahalko da.

4. INFORMAZIOA JASOTZEKO KONTAKTUA

Zalantzarik izanez gero, nora jo dezaket?

2023-2024-2025ko EPEaren webgunean aurkituko dituzu eskaera egiteko beharrezko jarraibideak. Bertan, "ohiko galderak" dokumentu batean bildu dira, eta lagungarria izan daiteke prozesu horri buruzko zalantzak argitzeko.

Beste azalpenen bat behar izanez gero, Hautaketako eta Horniketako Zerbitzuarekin harremanetan jarri nahi baduzu, erabili [formulario](#) hau.

5. PROZESUAREN JARRAIPENA

Non bistaratu ditzaket zerrendak

Zerrendak 2023-2024-2025 EPE webgunean ikus daitezke, "deialdiko oharretan". Horretarako, zure kredentzialekin identifikatu beharko duzu.

Nola jakingo dut onartua ala baztertua izan naizen?

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Langileen eta Talentuaren zuzendariak ebazpen bidez onartuko du onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda, eta ebazpen horretan adieraziko ditu baztertutako pertsonak baztertzeko arrazoia, izangai bakoitzak zer txandatan eskatu duen parte hartzea eta oposizio-fasea egiteko zer hizkuntza ofizial aukeratu duen.

Zer egin dezaket onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendan hautaketa-prozesuan onartu gabeko izangai gisa agertzen banaiz edo argitaratutako daturen bat okerra bada?

Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda argitaratzen duen ebazpenean, hamar egun balioduneko epea emango da erreklamazioak aurkezteko eta eskabidea zuzentzeko.

[Enplegu publikoa - Profesionalak](#)

Zer egin dezaket onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendan onartu gabeko izangai gisa agertzen banaiz?

Erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, ebazpena emango da onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoa eta zer txandatan parte hartzea eskatu den adieraziko dira.

Gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango da, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda argitaratu eta hilabeteko epean.

[Enplegu publikoa - Profesionalak](#)

6. OPOSIZIOALDIA

Non argitaratzen dira prozesuko probaren eguna, tokia eta ordua?

Hautaketa-proba egiteko deialdia Osakidetzaren web-orrian eta hedapen handieneko komunikabideetan argitaratuko da, eguna, ordua eta lekua adierazita.

Deialdi bakarra egingo da hautaketa-probak egiteko.

Hautaketa-prozesuaren zein unetan alegatu eta egiaztatu behar ditut betekizunak eta merezimenduak?

Onartuen behin betiko zerrendan daudenek eta, baztertuen zerrendako kasuan, dagokion epearen barruan gora jotzeko errekurtsua aurkeztu dutenek edo aurkeztuko dutenek **15 egun balioduneko** epea izango dute, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, deialdian parte hartzeko eskatzen diren betekizunak eta merezimendu baloragarriak alegatzeko eta merezimendu horiek egiaztatzen dituzten agiriak Curriculum Vitae tresnan eransteko, oinarrietan, oinarri espezifikoetan eta kategoria bakoitzeko oposizio-fasea gainditu dutenen zerrenda jasotzen duen ebazpenean zehazten den moduan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko informazio-sistemetan erregistratutako informazioan jasota ez dauden betekizunak eta merezimenduak Curriculum Vitae aplikaziora igo beharko dira, behar bezala digitalizatutako egiaztagiriekin batera.

Nire titulu eta merezimendu guztiak fisikoki aurkeztu behar ditut?

- **Ez**, baliozkotuta badaude Osakidetzako Curriculum Vitae aplikazioan.
- **Ez**, baldin eta prestakuntza-ziurtagiriek eta beste dokumentu batzuek egiaztapen-kode bat edo identifikazio elektronikoko sistema bat badute, telematikoki kontsultatu eta baliozkotu ahal izateko.
- **Bai**, prestakuntza-ziurtagiriak eta beste dokumentu batzuk ezin badira kontrastatu, ez dutelako egiaztapen-koderik edo identifikazio elektronikoko sistematik.

Horretarako, erregistro ofizialetan kopia konpultsatua aurkeztu beharko da merezimendua balioztatzeko, hautaketa-proben emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera gaitzen den epean.

Zer hizkuntza-titulu baloratzen dira merezimendu gisa?

Oinarri espezifikoa hala jasota duten deialdietan, merezimendu gisa baloratuko dira III. eranskinean jasota dauden hizkuntzen tituluak.

Gorde al dezaket EPE honetan lortutako nota etorkizuneko EPEetarako?

23-24-25eko EPEko oposizio-fasean lortutako puntuazioa automatikoki gordeko da deitzen den hurrengo hautaketa-prozesurako, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

- 1) Oposizio-fasea gainditzea.
- 2) Hurrengo prozesuan izena ematea eta tasa ordaintzea.
- 3) Bi prozesuetan parte hartzea txanda berean (irekia edo barne-sustapena) eta modalitate berean (sarbide orokorra edo desgaitasuna duten pertsonen kupo).
- 4) 2023-2024-2025 hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintza guztiak betetzea eskubideak aurkezteko epearen azken egunean, eta hautaketa-prozesua amaitu arte mantentzea.

Zer gertatzen da destinorako aukera duten izangaien zerrendan agertzen banaiz baina ez badut hautaketa egiten edo ez badituzte eskaintako destino guztiak aukeratzen?

Destinoa aukeratzeko aukera duen izangaiak galdu egingo ditu prozesuan parte hartzetik eratorritako eskubideak, bai destinorik garaiz eta behar bezala eskatzen ez badu, bai hautaketa osatugabea egiten badu baldintzak betetzen dituen destino guztiak ez hautatzeagatik. Eskubide-galtzeak erresulta-fase posible guztiei eragingo die.

Hizkuntza-eskakizunik ez badut, nahitaez aukeratu behar al ditut hizkuntza-eskakizuna duten plazak, hautaketa-prozesutik baztertua ez izateko?

Ez. Ez da beharrezkoa hizkuntza-eskakizuna duten plazak aukeratzea, ezingo baitzaizu horrelako lanposturik esleitu, baina nahitaezkoa izango da eskaintzen diren eta hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-data igarota ez duten plazen % 100 hautatzea. Bestela, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko zara.

Txanda irekian parte hartzen badut, barne-sustapeneko plazak aukeratu behar al ditut eskaintza osoaren parte badira?

Bai. Izan ere, oinarri orokorren arabera, barne-sustapeneko txandarako gordetako destinoak bete ezin badira, destino horiek txanda irekiari gehituko zaizkio. Beraz, nahitaez aukeratu beharko dira hautapen-prozesutik kanpo ez geratzeko.

Erresulta-faserik egongo da?

Deialdiko lanpostu guztiak betetzen direla ziurtatzeko, sartzeko baldintzak betetzen dituen hautagairik badago, izangaien behin betiko zerrendan ezarritako lehentasun-ordenaren bidez onartutako pertsonen-zerrendan dauden izangaiei esleituiko zaizkie lanpostu hutsak, lortutako puntuazioak zehazten duen lehentasun-ordenak ezartzen duen hurrenkeran.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 26.

I. ERANSKINA. 23-24-25EKO EPE-AREN DEIALDIAN SARTUTAKO KATEGORIAK

Lanbide-taldea	Lanpostua
A.1. Fakultatibo medikoak eta teknikoak	ALERGOLOGIAKO FEM
	ANATOMIA PATOLOGIKOKO FEM
	ANESTESIOLOGIAKO ETA BIZKORKETAKO FEM
	ANGIOLOGIAKO ETA KIRURGIA BASKULARREKO FEM
	DIGESTIO APARATUKO FEM
	KARDIOLOGIAKO FEM
	KIRURGIA OROKORREKO ETA DIGESTIO APARATUKO FEM
	AHOKO ETA AURPEGI-MASAIETAKO KIRURGIAKO FEM
	KIRURGIA ORTOPEDIKOKO ETA TRAUMATOLOGIAKO FEM
	KIRURGIA PEDIATRIKOKO FEM
	KIRURGIA PLASTIKO, ESTETIKO ETA KONPONTZAILEKO FEM
	TORAXEKO KIRURGIAKO FEM
	ZAINKETA ARINGARRIEN FEM
	FAMILIA MEDIKUNTZAKO FEM - LMAT
	DERMATOLOGIAKO, MEDIKUNTZA KIRURGIKOKO ETA BENEREOLOGIAKO FEM
	EMERGENTZIETAKO FEM
	ENDOKRINOLOGIAKO ETA NUTRIZIOKO FEM
	GAIXOTASUN INFEKZIOSOEN ARLOKO FEM
	GERIATRIAKO FEM
